

2.1.2.

KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.705 prentsa-ohar igorri zituen 2019an komunikabideetara, aurreko urtean baino % 10 gutxiago (1.891 udal-informazio igorri zituen orduan). Urrian 190 prentsa-ohar baino gehiago izan ziren eta martxoan, irailean eta azaroan 150 prentsa-ohar hilabete bakoitzeko. Kultura Alorrak eragin du prentsa-ohar gehien, igorritako informazioen heren bat baino gehiago zehazki.

Urtean, 198 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019
Prentsa-oharrak	1.636	1.844	1.913	1.891	1.705
Hedabideen deialdiak	187	281	270	287	189

SEINALE INSTITUZIONALAK

Komunikazio Zerbitzuak hedabideentzako garrantzitsuak diren ekitaldien seinale instituzionala antolatzen du, horien artean, 2019an, Osoko Bilkura Eratzeko saioa eta Alkatetzaren hautaketa (ekainaren 15ean) eta, urtero bezala 2007az geroztik, Txupinazoaren eta Gaixoa ni-ren zuzeneko ikus-entzunezko seinalea, Sanferminak hasi eta amaitzen dituzten ekitaldiak, hurrenez hurren.

WEBGUNEAK

2019ko otsailean Iruñeko Udalak webgune berria estreinatu zuen, aurrekoa, 2007koa, ordeztu duena. Webgune berriak eduki, zerbitzu eta herritarrentzako errazagoak diren izapideak biltzen ditu, erabilgarritasuna bultzatze aldera prozedurak errazten dituen egoitza elektronikoko berriari lotuta. Estetika eta diseinua ere berritu ditu. Webgunea responsive da, edozein gailutatik arazorik gabe ikus daiteke, eta edukiak berrantolatu zaizkio.

Udalak 180.000 euro inbertitu ditu webgune berrian eta egoitza elektronikoa; Hiberus Tecnologiak – horretarako deitutako prozedura publikoaren enpresa esleipendunak – egindako garapen teknologikora eta ANIMSAk egindako lanera bideratu da kopuru hori. Atari berria Drupal teknologia erabiliz gauzatu da, software libreko eta kode irekikoa den eduki-kudeatzailea, erabiltzaile-komunitate aktibo batek garatu eta mantendua.

Atari berriak Iruñeko Udalaren apustua mantentzen du A bikoitzeko erabilerraztasun-estandarrak betetzearen alde, eta lau hizkuntzatan dago: gaztelania eta euskara oro har, eta turismo-edukiak zein hiriri buruzko informazioa ingelesez eta frantsesez ere. Horretaz gain, sare sozialak ere barne hartzen ditu, erabiltzaileei edukiak partekatzea errazteko.

Webgune berriak emankizunen atala dauka eta prentsaurrekoak, osoko bilkurak eta batzordeak zuzenean ematen ditu; halaber, aurrez grabaturik dagoena ere ikus daiteke. Hala ere, akats informatiko bat dela-eta, ez daukagu 2019an izandako emankizunen kopuruaren daturik.

IRUDI KORPORATIBOA

2019ko otsailean ere Iruñeko Udalaren logotipo berria aurkeztu zen. Logoak udal-armarria ezkerrean mantentzen du eta "Iruñeko Udala" hitzez laguntzen du, bi testutan, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz, marra gorri batek bereizita.

Hautatutako tipografia Poppins delakoa da, sans-serif mota geometrikoa, eta aurkeztutako aldaerak atzealde zuri, beltz eta koloredunen gainekoak dira.

SANFERMINAK

Sanferminek erreferente mediatikoa eta informatiboa izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 120 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera 2019an, jaietako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, Estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariak, irratiek, zinema- eta telebista-ekoiztetxeek interesa agertu dute entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak hamar herrialde baino gehiagotatik etorri dira, horien artean: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko, Alemania, Brasil, Errusia, Japonia, Kuba eta Hego Korea.

2019KO SANFERMINETAKO AKREDITAZIOAK: TXUPINAZOA, ENTZIERROA ETA GAIXOA NI

	2018		2019	
	Akreditatu kopurua	Hedabide kopurua	Akreditatu kopurua	Hedabide kopurua
Txupinazoa	160	45	158	40
Entzierroa	400	130	402	121
Gaixoa ni	90	35	100	37